

## BERBALAGUNEKO 'MENUA' OSATZEKO EPEA ZABALIK

Berbalagun egitasmoak 2012an zehar burutuko dituen ekintzak aukeratzeko prozesua martxan ipini du. Prozesu honetan interesa duten herritar guztiek parte har dezakete eta hauek gustuko dituzten ikastaroak, hitzaldiak, kirolak eta txangoak proposatu beharko dituzte. Proposamenak [ermua\\_berba@aek.org](mailto:ermua_berba@aek.org) helbidera bidali edo Kaltxango, Udal Euskaltegia, Elexoste edo Euskara Sailera eraman beharko dituzte urtarrilaren 6a baino lehen.

## 18 LAGUN BILDU ZIREN ERMUAN ETA MALLABIAN ERREKA GARBITZEKO



Debegasak eta Uraren Euskal Agentziak elkarlanean antolatuta, Deba eta Ego Ibaian garbiketa saioak burutu ziren azaroaren bukaeran. Ermuan 15 boluntario elkartu ziren eta denen artean Beranoko ubidea garbitu zuten, Errekalden. Mallabian ez zen talderik sortu baino bertako 3 herritar Ermukoekin lanean aritu zirela jakinarazi dute bertako arduradunek. Hiru orduz jardun zuten ibaian aurkitutako hondakinak jasotzen eta, hori dela eta, Debegasak eskerrak eman nahi dizkie guztiei.

## Abenduaren 26ra arte erakusleihu lehiaketarako bozketa epea zabalik

Gabonetako Erakusleihoen II. edizioa antolatu da aurten Ermuan eta 25 dende izena eman dute: Sukei, Enter informatika, Ramos moda, 7 Colores, Senén bitxi-denda, Dskaro, Vintage, Solozabal estankoa, Artarrai, Etxedreams koltxoi-denda, Cocoliso, Elenco 2, Sare informatika, Virginia Pascual, Truccos ile-apaindegia, Nina, Anboto burdindegia, Sagardui poltsak, Lotalo, El Baul, Egaña, Mariasun lore-denda, Marfil ile-apaindegia, Ainner ile-apaindegia eta Orbe toldoak. Izena emateko epea abenduaren 12an itxi zen eta herritarrek abenduaren 26ko gauerdia arte botoa emateko aukera izango dute (Ermuko Udaleko web-gunean). Gainera, bozketan parte hartzen duten guztien artean dende emandako produktuekin osatutako sorta zozketatuko da. Lehiaketa honen helburua *"merkatariek euren erakusleihoko apaindu eta jantzi ditzatela da. Gabon giro handiago eta koloretsuagoa izan dezagun gure herrian"*, azpimarratu du Udalak. Parte hartzen duten dende, gutxienez, 22.00ak arte izan beharko dituzte erakusleihoko argizatuta abenduaren 6a bitartean.

## Urtarrilaren 7ko manifestaziorako autobusak ipiniko dira Ermutik

Ermuko Herri Bilguneak jakinarazi duenez, urtarrilaren 7an Bilbon burutuko den herri mobilizazioan parte hartzeko autobusak ipiniko dira. Interesa dutenek Infreñu edo Txalaparta tabernetan eman beharko dute izena. Manifestazioa 17:30ean hasiko da, 'Kaleak bete, kartzelak hustutzeko' lelopean. Era berean, abenduaren 30ean (azken ostirala) eta urtarrilaren 1eko goizaldeko 1:00etan burutuko den brindean parte hartzeko gonbitea egin du Bilguneak.

**KALEAK BETE  
KARTZELAK HUSTUTZEKO**  
URTARRILAK 7 HERRI MOBILIZAZIO OROKORRA 17:30ETAN BILBON



## XVIII. Juanita Ibaibarriaga Literatur eta Erreportaje Lehiaketaren sariak banatu dira

Igor Piñeiro, Aitor León, Gaizka Cuadrado, Aicha Martínez, Iraia Bengoetxea, Maddi Gorrotxategi eta Ruth Lorente izan dira Juanita Ibaibarriaga Literatur lehiaketaren aurtengo irabazleak, umeentzako kategorian, eta bakoitzak 40 euroko erosketa txekoa jaso du. Erreportajeen kategorian, berriz, Imanol Bustinduyk lortu du 400 euroko saria 'Gizon on bat' lana idazteagatik. Sari banaketa Udal Liburutegian burutu zen abenduaren 1ean. Orain arte Euskal Birusak antolatzen zuen ekimen hau Ermuko Udaleko Euskara Saialak kudeatu du aurten estreinakoz eta arduradunen arabera *"ikasleen parte hartzea oso handia izan da"*.



**Proba-Leku**  
Heapaindegia - Estetika

Probaleku 3, 1A  
**Tel. 943 17 05 42**

Drogeteniturr, 196 zkia.

**T** XALAPARTA  
ABERNA

Eta asteburuetan  
pintxoak, afariak  
eta bokatak!

Erdikokale 13  
(Ermua)

**ENKARGVAK**  
**943 030 299**

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

**NEREA ÍÑIGUEZ  
HORTZ KLINIKA**

San Inazio 4 - Ermua  
943 030 512 / [niklinika@gmail.com](mailto:niklinika@gmail.com)